

«Zergatik Panpox», «Hamaseigarrenean aidanez»
eta «Ehun metro»

Hiru nobela zinemaz eskainiko dira euskaraz hutsez

Egia esan behar bada, informazio hau ARGIAko irakurleei eskaintzen badiogu ez da izango berau jasotzeko eman zaizkigun erraztasunengatik. Izan ere, proiektuaren buru den Anjel Amigok behin eta berriz ukatu digu ezein elkarrizketa informatiborako aukera. Ez gara hemen hasiko Amigok horrelako jarrera agertzeko izango dituen arrazoinak argitzeko saiotan; gera bedi bere jokabide horren testigantza. ARGIAko irakurleek, hori bai, informazio hau eskuratzeko eskubidea dute eta ni horretara mugatuko naiz.

Udan filmatzen hasteko

Dudarik ez dago proiektu honen nondik norakoa garrantzia berezikoa dela euskal kulturarentzat. Hasteko hiru filmeak euskara hutsez eskainiko direlako aurrenik, horrek suposatuko duen antezedentea guztiz inportantea delarik. Orain arte egin diren euskarazko luzemetraiak irudi animatuzkoak («Kukubiltxo»), dokumentalak («Ama Lur», «Euskal Musika», e.a.), edota esperimentalak («Axut») izan dira. Oraingo proiektu honek, beraz, berrikuntza haundi bat ekarriko du: irudi errealekin filmatuko diren lehen luzemetraiak.

Uda aldean filmatzen hasteko asmoa dago hiru filme hauek, eta dagoeneko lanean ari dira gidoiak lantzeari ekin dioten pertsonak. Gidoiak, esan dezagun, hiru euskal nobela famatutan oinarrituak daude: Anjel Lertxundiren «Hamaseigarrenean aidanez», Arantxa Urretavizcayaeren «Zergatik Papox», eta Ramon Saizarbitoriaren «Ehun metro». Arantxaren nobela zinemara egokitze-lanetan filmea-



Imanol Uribe, Xabier Elorriaga eta Montxo Armendariz, hiru filmeen zuzendariak.

Aurten lehenengo aldiz, ETB eta Anjel Amigoren produktorearen eskutik, euskara hutsez filmatuko eta estreinatuko da irudi errealekin errodaturiko fikziozko luzemetraiari. Bat ezezik, hiru. Hiru euskal nobelatan oinarriturik.

ren beraren zuzendaria izango dena ari da lanean. Xabier Elorriaga (zeina aktore izatetik zuzendari izaterako pausua emango bait duen). Beste bi filmeetako gidoietan nobelagileak berak dira gidoiak egiten ari direnak. Halere, gidoigintza lanetan beste «inor» jantziago baten superbegiratzea izango dute.

Bertako aktoreak eta teknikoak

«Cine Vasco»ak orain arte ipintze ari zen zenbait oinarri faltsu ere hiru filme hauetan ez

dira agertuko, kanpoko egitura teknikoarena esate batera. Filme hauetan teknikarien 10% baino ez da kanpotik etorriko, gainerako teknikari guztiak (aktore-aktoriesak bezalaxe) bertakoak izango direlarik. Oso alor inportantea deritzogu honi, batez ere aurrerantzean telebistarako ez diren filmeak errodatzekoan erizpide berak aplikatzen badira.

Hiru filme hauen diru-produkzioa hiru partetara joango da: alde batetik Eusko Jaurlaritzak, bestetik ETB eta hiru garrenik Frontera Films. Hiru

filmeak ekoiztuz gero, lehenik proiektzio-eskubideak ETBk beretzat gordeko ditu, ondoren beste erdal hizkuntzetara itzultzeko eskubideak nahiz pantaila haunditan proiektatzeko aukerak ere erregistratuak agertzen direlarik. Litekeena da, beraz, ondoren pantaila txiki-ira pantaila haundira pasatzea.

Hiru zuzendari, hiru estilo

Azkenik, hiru filme horietako zuzendariak nortzu izango diren geratzen zaigu. Izan ere, hiru filmeak estilo berdinez — eta beraz, zuzendari berdinez — egitea ezik, hiru zuzendari desberdin izendatu bait dira lan horretarako (zentzuzko erabakia, bestalde). Hiru zuzendari horiek guztiz esperientzia desberdinetakoak ditugu, bata Montxo Armendariz izango bait da («Ehun metro»), bestea Imanol Uribe («Hamaseigarrenean aidanez»), eta azkena Xabier Elorriaga («Zergatik Panpox»). Esan bezala Elorriaga berria dugu honelako lanetan, ofizioan ez baina (zinema munduan berak adina esperientzia inork ez du edukiko proiektu honetan). Montxo Armendariz nafarrak iaz egin zuen bere debut ezin hobea «Tasio»rekin, eta oraingo hau beraz, bere bigarren filmea izango da. Imanol Uriberentzat, berriz, laugarrena izango da «El proceso de Burgos», «Segoviako Ihesa», eta «La muerte de Mikel»en ondoren.

Aurrerantzean zuzendari bakoitzarekin bere aldetik mintzatzeko asmoa dugula esango dugu gaurkoa nolabait amaitzearen.

Pello SARASKETA